LEHENTASUNEZ BIRGAITU BEHARREKO EREMUA ETA ESKU-HARTZE OROKORREKO PROIEKTUA

Etxebizitza arloan eskumena duen departamenduak mugatzen du lehentasunez birgaitu beharreko eremua, babestutako birgaitzearen onurak eta dirulaguntzak eskuratu ahal izateko.

Eremu horiek hirigune historikoak edo beste eraikin-multzo batzuk izaten ahal dira, baldin eta babes-plan berezi bat edo barne-erreformarako plan bat badute eta, gainera, birgaitzen laguntzeko udal-ordenantza espezifiko bat badute.

Orain arte, **lehentasunez birgaitu beharreko eremu izendatu dira Nafarroako toki hauek:**

- **Ablitas (alde zaharra)**
- **Arakil**
- **Arantza**
- **Basaburua**
- **Cárcar**
- **Cintruénigo**
- **Corella**
- **Doneztebe**
- **Lizarra**
- **Fitero**
- **Galipentzu**
- **Imotz**
- **Ledea (hirigune historikoa)**
- **Irunberri (hirigune historikoa)**
- **Mendabia (alde zaharra)**
- **Erriberri**
- **Iruña (alde zaharra, zabalguneak eta Arrosadia)**
- **Gares**
- **Zangoza**
- **Tafalla**
- **Tutera**
- **Uharte Arakil**
- **Viana**
- **Alesbes**

Horiez gain, badira lehentasunez birgaitu beharreko eremu izan gabe ere **hala balira bezala laguntzak jasotzen dituzten beste eremu batzuk**. Zehazki, Pirinioa Garatzeko Plan Estrategikoan jasotako udalerrietan dauden 50 urtetik gorako eraikinak eta etxebizitzak dira.